



agirika egin 'gogor egin, garratz hitz egin'	"...giro hartan osaba Demetrio zuen lagunik leialena, hark ere agirika egin go zion arren..."	(70)
agitu 'gertatu, suertatu'	"...burura zetozkidan hitz guztiak alferrikakoak agitu zitzaizkidan..."	(19)
ahamen 'mokadua, ahatar'	"...bere teoria sozial eta ekonomikoak sakontzeari ekingo zion, ahamenik ahamen, zurrutik zurrut."	(125)
aide 'airea'	"...era guztietako eritasunak osatzen baitzekien, aide gaiztoak gorputzetik atereaz..."	(16)
aitzin 'aurretik, lehenago'	"Oheratu aitzin laket zitzaion amona Roxaliri leihoa zabaldu eta ilargiari so egitea."	(26)
aitzina egin 'aurrera jo'	"...baina ondoan amona zeneukan eta aitzina egin zenuen."	(71)
aiurika 'uhuriaka'	"...ilundu baino lehentxeago aiurika eta urubika ekin zion otsoak, bildotsak beeka."	(86)
alper-harri 'mandarria, lur-mokorrak zapaltzekoa'	"...oraindik ezin jaso zuten alper harriari begiratzera joango ziren zuzenean..."	(64)
altsuma 'kimua, muskila'	"Txilibituak egiten eta, orduan ikasi nuen nik, esate baterako, horretarako gaztaina edo lizar altsumak erabiliz."	(30)
amesgaizto 'lokamutsa'	"Baina besteetan amesgaiztoak bere sareetan harrapatzen ninduen..."	(195)
anartean 'bitartean'	"Felizianok anartean bere patua madarikatu zuen beste behin..."	(117)
antzeman 'igarri'	"...ni ate ondora iritsia nintzela antzemanez ."	(180)
antzigar 'intzigarra, ihintza izoztua'	"...esan zizun antzigarra eta lantxurda zekartzan frantzi-iparrak."	(189)
apetsatsu 'kapritxosoa, bitxia'	"...aitaren funtsik gabeko erabaki apetsu harengatik..."	(102)
arakatu 'miatu, sakon ikertu'	"...garaiko egunkariak aztertu eta arakatzeko erabakia hartu nuen..."	(9)
arestian 'duela gutxi, lehentxeago'	"Eta arestian utzitako beldurrak berriz harrapatu zintuen arrontetik..."	(87)
argizaiol 'bildumena, kandela luze bildua'	"...Elizako jarlekuetan argizaiolak iziotu ondoren..."	(17)
arkakuso 'ardia, kukusoa'	"...ganbaran lo zegien bakoitzean gorputzari itsasten zitzaizkion tximitxak eta arkakusoak izan ezik..."	(117)
arnegatuta 'amorratuta, madarikazioka'	"Bai, bere onetik irtenda zebilen garai hartan Feliziano, arnegatuta , barrutik estutzen baitzuen harrak..."	(70)
arren 'otoi, mesedez'	"...amari biraoa hausteko eskatzen zion (...) arren eta arren ama..."	(22)
arrantetik 'erabat, guztiz'	"Eta arestian utzitako beldurrak berriz harrapatu zintuen arrantetik ..."	(87)
arte-ehiztari 'arteak edo tranpak erabiltzen	"Axentxio inguru haietako arte-ehiztaririk ezagunena zen..."	(84)
artesi 'arrakala, pitzadura'	"Zimur haiek lurrari sortzen zaizkion artesiak gogorarazi zizkidaten..."	(191)
artesitu 'arrakalatu, pitzatua'	"...langileek eraitsitako pareta guztiz artesitua ."	(10)




artez 'zuzen'	"...eta ez atzekoz aurrera, artez eta arauz baizik..."	(16)
asaba 'arbasoa'	"...gure asabak zaldun handiak izan zirela..."	(36)
astalkai 'matazura, astalkatzeko tresna'	"...ahariaren adarrak astalkaitzat hartuz urrezko matazak harilkatzen..."	(54)
atorra 'antzinako alkandora,	"...hamabi ohazal, hamabi alkandora eta hamabi atorra , hamabi mihise..."	(111)
atzera 'berriro, berriz'	"...baina ni bizirik geratu nintzen hura atzera altxatzeko."	(130)
ausiki 'koska, haginkada'	"...mamorro horiek tarteka egindako ausikiak ere bai..."	(175)
azantz 'hotsa, zarata'	"...trenaren azantz burdinkareekin batera zeure sabelaren biribiltasuna hausten zuen hotzikara..."	(184)
bailerraion 'jarraituko balitzaio bezala'	"...Zumalakarregiren armadara bildu zen, bere buruari itaun gehiagorik egiteke, odola odolari bailerraion ."	(45)
bala-bala 'batean-bestean, nonahi, edonon'	"...hori baitzen herrian bala-bala zebilen bigarren berria."	(99)
barakuilu 'barraskiloa'	"Berak sendatu zuen (...) barakuilu batzuk ontzi batean utzitako mukia azukrearekin nahastuta emanek..."	(80)
barano 'ingurua'	"...han barano haietatik iragaten baita gaur egun trena..."	(9)
barrandan 'zelatan'	"...laurak sukaldeko leihotik begira jarri zineten barrandan , hura noiz etorriko..."	(176)
begi-aurreko 'monokulua, betaurrekoa'	"...Margari sartu zuen bere begi-aurrekoaren objektiboan..."	(194)
begietsi 'ikusi'	"...eperrak han eta hemen begiesten zituenean batik bat..."	(22)
begitandu 'iruditu'	"Eta emaztea eroturik zegoela begitandu zitzaion Trinidadori..."	(216)
beha 'begira, so eginez'	"...Bedaniara harria zetorrela eta Lurruspera beha abemaria bat errezatu zuenean..."	(16)
behingoz 'azkenean / behin betiko'	"...ipar beltzarekin behingoz harrika hasi gabe."	(189)
belaze 'belardia, larrea'	"...galapan jarri zuen bere zaldia, galapan eta galapan, Babiloniako belazeetako azken mugetaraino."	(134)
beltzuri 'betilun, haserre'	"Etxera itzulitakoan amona Roxali zeneukan zain atarian, beltzuri ."	(121)
beta 'astia, aizina'	"...orri hauek irakurtzeko beta eta pazientziarik hartzekotan, alegia..."	(9)
betertz 'begi ertza'	"...horrela joan biak elkarren ondoan, isilik, betertzez elkar zainduz, elkarren zelatan..."	(168)
bilintzi-balantza 'kulunkan'	"...Trinido makal gainera igo eta bilintzi-balantza ibili zen hartan."	(56)
bipilki 'ausarki, adoretzu'	"Eta gerran ere irrirtiz irrirtzi ibili zen, suharki eta bipilki ..."	(45)
birao 'madarikazioa, araoa'	"Hurrengoan erne ibil hadi, bestela biraoa botako diat eta!"	(21)



bol-bol 'irakiten'	"Felizianok bol-bol somatu zuen odola..."	(131)
burdinkara 'burdinaren antzekoa, metalikoa'	"...trenaren azantz burdinkararekin batera zeure sabelaren biribiltasuna hausten zuen hotzikara..."	(184)
burumutxika 'jauzika, artasika, saltoka'	"Harrapatu nuenean biok ibili ginen irinaren gainean, zilipurdika eta burumutxika , besarkatuta eta barrez."	(97)
buruzut 'txut, harro, tente'	"Ohi bezala, buruzut zihoan Feliziano Garayalde bere zaldi beltzaren gainean, Azaola baserrirantz."	(50)
dagi 'egiten du'	"—Bai, Mari naiz, nafar hegoaren magalean dantza dagien Mari."	(19)
deuseza 'ezereza, ezdeusa'	"... deusezaren itzalak baino ez zenituen ikusi zeure sabelaren inguruan..."	(138)
dulun-dulun 'zintzariaren hotsa'	"Amaren sehaska kantekin batera etxeko larrabehien dulun-duluna daukat gogoan, menditik etxera ekartzen genituenean."	(29)
durundi 'oihartzuna'	"...Trinidoren garaipen irrintzia entzun ahal izan zen ozenki, inguru osoan durundi eginez."	(67)
ebatzi 'erabakia'	"...Kaxiano Garayalderen ebatzia aztertzeo aski dela deritzot..."	(11)
edabe 'edari berezia, sendagarria'	"...haatik, haren edabe eta errezoak alferrikakoak jazo zitzaizkien."	(130)
egotzi 'bota, jaurtiki'	"Eta pipatik arnastutako kea egotziz , bikiek atseginen zituzten pasadizoak kontatzeari ekingo zion..."	(57)
ehortzi 'lurperatu'	"Eta aita ehortzirik , kanposantutik etxeratu zirenean, amak ez zezala inoiz esko- petarik hartu agindu zion Ziprianori..."	(22)
eihera 'errota'	"...garirik ezean eiherako bihitegiak gehienetan husturik zeudelako..."	(24)
eite 'antza, itxura'	"...nola batzuetan suzko emakume baten eitea hartzen zuen..."	(54)
ekandu 'ohitura'	"Felizianok bazekien Trinidoren ekanduen berri, baita ekandu zaharrak nekez lagatzen direla ere..."	(167)
ele 'berba, hitza'	"Eta orduan amona Roxalik inoiz esandako eleak oroitu zenituen..."	(139)
endelegatu 'ulertu, aditu'	"Eta urte batzuk aurrerago endelegatu ezin izan zuena endelegatu zuen orduan..."	(110)
enparau 'gainerakoa'	"Konbentzitu zituzten azkenean goi karguek don Tirso, Trínido eta enparauak ."	(187)
eper 'txori mota (faisaiaren)	"... eperrak han eta hemen begiesten zituenean batik bat..."	(22)
eraitsi 'bota, erorrarazi'	"...langileek eraitsitako pareta guztiz artesitua."	(10)
erromako zubi 'ortzadarra, ostadarra, osterkua'	"...kukuak bezala Erromako zubiaren gainean jotzearekin amesten baitzenuen jada..."	(35)
erruz 'eurrez, asko, oso'	"...azkenean ohitu eta erruz gustatu zitzaidan..."	(142)
eskuhar 'eskumenean, hartzeko moduan'	"...urrutiko urak hurbilduz, zeruko hodeiak eskuhar ipiniz..."	(144)
estakuru 'aitzakia'	"... estakururen bat asmatu behar eta, horixe esan zion."	(174)



ezpel 'zuhaitz mota "Buxus "'	"...amestutakoa berresteko asmotan, ezpel hostoa jaurti zuen sutara..."	(18)
ezproin 'ziria, erpa, orkatxa (espuela)'	"... ezproinei eraginez arinari eman zioten, atzetik Ziprianoren ahotsa entzun zezaketelarik..."	(91)
eztarri zurikoa 'ahots mehea, ahula'	"Eta bozarekin ere berdin gertatzen zen, ni eztarri zurikoa bainintzen..."	(133)
ezuste 'ustekabea'	"... ezustean zerbait ikaragarria sentitu zenuen..."	(62)
ferratu 'ferrak jarri' (herradura)	"Zaldia ferratzer a zeramala jakin zuen Felizianok haren berri."	(83)
frankotan 'askotan, sarri, maiz, usu'	"Zuk adi-adi egiten zenion so baina gogo frankotan beste leku batzuetara joaten zitzaizun ihesi."	(34)
galdara 'bertza, lapiko handia'	"...lehertutako galdara gorria bailitzan, azaleko xularme orotatik egin zion gainezka bekaitzak Felizianori..."	(53)
galsoro 'garia ereiteko soroa'	"...lur sail bat zuten San Juan mendiaren magalean, han Aitzondon: alde batean, iralekua; bestean, galsoroa ."	(40)
gandor 'gangarra, galdorra'	"Sarritan pentsatu izan dut gandor ederreko bi oilarrek eutsi beharko lioketela Garayaldetarron armariari..."	(81)
gibelatu 'atzeratu'	"Urte hartan, maiatzean, odola gibelatu zitzaizun..."	(139)
gidail 'animalien atzeko hankak'	"Hilariok eskuan zuen hedeari eragin eta zaldia gidailen gainean zutitu zitzaion, Klaudiok atzera zegielerik izututa."	(110)
gogaitu 'gogoia galdu'	"...bazekien ezer egiteke geratuko balitz aspertu eta zeharo gogaituko litzatekeela..."	(143)
goiti 'aurrera, gora'	"...eta handik goiti halaxe ibili zinen..."	(198)
gomutatu 'oroitu, gogoratu'	"...eta gomutatu , haren itzuleraz gomutatu zen bereziki..."	(42)
habaila 'harriak jaurtikitzeko arma'	"Feliziano habailarekin bakarrik zen nagusi, harekin harritxoak noranahi jaurtikitzeko gauza zelarik."	(52)
hagitz 'askoz, txit, oso'	"...arranoaren hegoak, hagitz ere azkarragoak."	(203)
hanpurutsu 'harroa, hantustetsua'	"...pozik begiratu zion osaba Demetriok, oilar hanpurutsua irudi."	(84)
harilkatu 'harildu, haria bildu, astalkatu'	"...ahariaren adarrak astalkaitzat hartuz urrezko matazak harilkatzen ..."	(54)
harraize 'ipar-mendebaldeko haizea'	"Ez al ditun trumoiak entzun? Ez al dun harraizea aizkoran somatu?"	(48)
harri 'txingorra, inetasia'	"...poliki ernetzen ari ziren barazkiak harriak hondatu zituen."	(182)
hasi ez beste 'hasiaz batera, eta berehala'	"Gerra hasi ez beste , Bedaniako Udaletxea lagata Itzuruna joan zen Feliziano."	(201)
hats hartu 'arnasa hartu'	"...zure amonak hats hartu zuen, sakonki, haizearekin batera eguzkia ere bere egin nahi bailuan."	(120)
hatsanka 'arnaska, arnasestuka'	"...esan zenuen, hatsanka , ondoren oihi ikaragarri bat eginez."	(177)
hauspo 'birika, arnagunea'	"...gorpuaren hil lurrina, argizari erre usaina eta arrosen perfumea, hirurak zure baitan nahasi ziren, zure arnasaren hauspoan ..."	(62)




hede 'uhala'	"Hilariok eskuan zuen hedeari eragin eta zaldia gidailen gainean zutitu zitzaion..."	(110)
hesol 'hesia'	"...baserri bataren eta bestearen lurak mugatzeko hesol bat zegoen..."	(160)
hurrandu 'hurrreratu, hurbildu'	"...ezustean Herensugea bera hurrandu zitzaizun..."	(104)
iaio 'trebea, moldatsua'	"...berari esker baitziren Trinidado eta Feliziano hain iaioak eta hain azkarrak moxal haien gainean."	(74)
idoro 'aurkitu, ediren, kausitu'	"...zulo biribil batean bildurik idoro omen zuten langileek..."	(10)
ihardetsi 'erantzun, arrapostu'	"...zuk gezurra zela ihardetsi zenion..."	(103)
ika-mikan 'eztabaidan, sesioan'	"...hik hau eta nik hura, ika-mikan segituko zuten biek, harik eta Baxili tartean sartzera behartuta sentitzen zen arte."	(59)
ilbera 'hileroko odola, menstruzioa'	"— Ilbera joan zen eta Ilgoran nago berriro, Trinidado..."	(176)
ilgoran 'ernaltzeko moduan'	"— Ilbera joan zen eta Ilgoran nago berriro, Trinidado..."	(176)
inastorra 'ira, garoa'	"...hara joan behar izan genuen egun hartan inastorra moztu eta biltzera."	(135)
iraleku 'ira larrea, iratze lekua'	"...lur sail bat zuten San Juan mendiaren magalean, han Aitzondon: alde batean iralekua ; bestean, galsoroa."	(40)
iraungi 'gutziz amaitu, desagertu'	"Eta haren amorrua ez zen iraungi harik eta bere begi-aurrekoan Margariren irudia harrapaturik ikusi zuen arte..."	(202)
irran erein 'eskuaz airera botata erein'	"Nafar hegoak irran ereiten zituen urtero bere usoak..."	(202)
itzalgaizka 'ezkutuka, ixilka'	"Eskuizkribua paretan nahita egindako eta itzalgaizka itxitako zulo biribil batean bildurik idoro omen zuten langileek..."	(10)
iziotu 'piztu, ixiotu, irazeki'	"...Elizako jarlekuetan argizaiolak iziotu ondoren..."	(17)
jadetsi 'lortu'	"...arnasa sakonki hartuz bere barne ekaitz hura baretzea jadetsi zuen..."	(131)
jagon 'zaindu'	"...baina matxinsaltoaen jauziak bai, bertatik jagonez ..."	(144)
jaitzi 'eraitsi, esnea atera'	"...goizean goiz ardiak jaiztera joan behar zuela..."	(102)
jalgi 'irten, atera'	"Etxetik jalgi zinenean, barne-barneraino sartu zitzaizun ezustean haize hura..."	(198)
jas 'jatorri-, familia- edo arraza'	"...armarriari begiratu eta otsoa eta koroaren istorioa asmatu zuen, adorea jasetik zetorkiola sinetsiz."	(44)
jazo 'gertatu, agitu'	"...haatik, haren edabe eta errezoak alferrikakoak jazo zitzaizkien."	(130)
joran 'irrikia, lehia'	"Eta Felizianok gogoz eta joranez ekin zion bere lan berriari..."	(124)
kanposantu 'hilerria'	"Eta aita ehortzirik, kanposantutik etxeratu zirenean, amak ez zezala inoiz eskopetarik hartu agindu zion Ziprianori..."	(22)
karraka 'zalaparta, matraka'	"...belea iruditu zitzaidan, haren karrakak entzunda."	(133)




koartz 'txori mota (garza)'	"... koartzak bezala hegatu nahian bailebiltzan..."	(91)
kordegabe 'konorte gabe'	"...hankartean min izugarria nabaritu eta lurrera erori nintzen arte, kordegabe ."	(159)
kukutx eztul 'kukurutx eztula, eztul gaiztoa'	"Berak sendatu zuen, esate baterako Klemente, honek kukutx eztula harrapatu zuenean..."	(80)
kunderak inguratu 'errosarioa eskuartean ibili,	"Apaiza kunderak inguratzen ari zela, gorpuaren hil lurrina, kandlei zerien argizari erre usaina (...) zure baitan nahasi ziren..."	(62)
kurrikatxo 'trukesa, orrika (tenaza)'	"...irekiarazi zion ahoa eta kurrikatxoak sartuta hagin gaizto hura kendu zion..."	(185)
lagatu 'utzi'	"Felizianok bazekien Trinodoren ekanduen berri, baita ekandu zaharrak nekez lagatzen direla ere..."	(167)
laia 'lanabesa, lurra bueltatzeko'	"...ez dut esan haiek hamaika urte zituztenerako laiarekin zohia hausteko gauza zirenik..."	(133)
lakari 'garauetarako neurgailua'	"...oraingoan ez zinen Iñaxiren lekuan, Zeremonenean baizik, zangoak lakarian sartuta..."	(103)
laket 'atsegin, gustuko'	"Oheratu aitzin laket zitzaion amona Roxaliri leihoa zabaldu eta ilargiari so egitea."	(26)
lantzurda 'gaueko ihintz izoztua'	"...esan zizun antzigarra eta lantzurda zekartzan frantzi-iparrak."	(189)
larrabehi 'belardiko behia, basabehia'	"Amaren sehaska kantekin batera etxeko larrabehien dulun-duluna daukat gogoan, menditik etxera ekartzen genituenean."	(29)
larrain 'biribila, esfera'	Goiko ilargiaren larrainari so -zilarrezko ispilu distiratsua irudi-, bere emazteaz gomutatu zen..."	(211)
lauskitu 'indarrez igurtzi, sakatu'	"...Felizianori arnasa estutzen zitzaion, aitaren eskuak birikak lauskitu bailizkion."	(52)
lokuluska 'loalditxoa, loaldi laburra'	"...hark ez baitzuen lokuluska egiteko ohiturarik."	(36)
maindire 'izara'	"...hantxe zenituen hamabi maindire , hamabi ohazal, hamabi alkandora..."	(111)
maiorazgo 'premia, herederoa'	"Horregatik, aitak Trinidad maiorazgo izendatu zuen egun hartan..."	(93)
mairu 'arabiarra, musulmana'	"... mairuak bezala haiek ere beti borrokan ibili izan zirelarik..."	(9)
maizter 'inkilinoa'	"Bidean Klaudio Burutaranekin topatu zen, Azaola baserriko maizterrekin ..."	(41)
mamorro 'kokoa, mamua'	"...hazkura nabaritu zenuen zeure azalean, mamorro ikustezin batzuk hemendik hara..."	(175)
marranta 'gaixotasuna, muki ugarikoa'	"Zakar hitz egiten baitzuen Felizianok, beti marranta balu bezala."	(133)
mataza 'harila, artilezkoa...'	"...ahariaren adarrak astalkaitzat hartuz urrezko matazak harilkatzen..."	(54)
meta 'zerbaiten multzo handia'	"Gero, meta baten gibelean ezkututzen ikusi zenuen..."	(195)
mihise 'lihozko ehuna, maindirea'	"...hamabi ohazal, hamabi alkandora eta hamabi atorra, hamabi mihise ..."	(111)
mihizkatu 'milikatu, mihiaz txupatu'	"...nik musu eman nion eta berak aurpegi osoa mihizkatu zidan."	(163)



moxal 'zalditxoa, behorraren ume'	"...ongi ikasitakoan, moxal bana erregalatuko dizuet."	(48)
oilagor 'txori mota, moko fin luzeduna'	"...otea biltzen ziharduen egun batean, oilagorra ikusi eta atzetik joan zitzaion..."	(22)
oinaztargi 'tximista, inisitua'	"...galdetu zizun Felizianok, galdetu zizuten Felizianoren begietako oinaztargiek ."	(91)
okil 'txori mota (zuhaitzak zulatzen)	"Eta haren segidan okilak ere bazekiela eguraldiaren berri esanen zizun..."	(34)
orbandu 'zauria itxi, zikatrizatu'	"...zauri zaharra orbandutako leku beretik ireki zitzaion."	(194)
ordeka 'lautada, zelaia'	"Ai Guad-el-Jeluko ordeka lehor haietan, infernuko labe hartan egindako ordu ikaragarri haiek!"	(158)
ostendu 'ezkutatu'	"Gero, meta baten atzean ostendurik ..."	(194)
ostenkako 'ezkutuko, sekretua'	"...zulo bat egiteari ekin zion isil-gordean, ostenkako irindegi bat."	(23)
osteratu 'bizi erantzun'	"...eta Demetriok "Guk ez, baina Jainkoak halaxe ikusiko dizkik, goitik" osteratu zion..."	(59)
ote 'basalandare arantzaduna'	"...Ziprianorekin batera otea biltzen ziharduen egun batean..."	(22)
otoz otoan 'ustekabea, ezustean'	"...bi moxalak erosi eta ilunabarrez Babiloniara heldu zenean, otoz otoan harrapatu zituen guztiak."	(66)
panpakada '(ate) kolpea'	"...eta panpakada batekin itxi zuen atea."	(132)
patu 'zoria, adurra'	"...bere patua mila bider madarikatzen ibili zen egun batean..."	(109)
pertza 'ontzia, galdara'	"Eta haren ondotik ilunabarrean pertzak baratzean behar zuela esanen zizun, eta neskatzak etxean..."	(26)
sikiera 'behintzat, bederen'	"...horretan suerte piska bat izan nuen sikiera , eskerrak."	(156)
sobera 'gehiegi, larregi'	"Ez, nik ez dut hitzetan sobera sinesten..."	(19)
sonbrailu 'sonbreirua, kapela'	"...gero sonbrailu bat erregalatuko diat..."	(124)
sor eta lor 'guztiz harriturik'	"...bere buruaren jabe-jabe ikusten zuten gazte hura eta sor eta lor behatzen zioten."	(86)
soraio 'nagiki'	"...harri eta zur begiratzen zieten (...); osaba Bernardok, aldiz, soraio eta arduraga- beki."	(47)
suharki 'gartsu, sutsu'	"Eta gerran ere irrintziz irrintzi ibili zen, suharki eta bipilki..."	(45)
sutauts 'bolbora'	"Eta mutil haiek sutautsa eta lehergaiak burdinen azpian ipini..."	(197)
taigabeki 'eten gabe, amaigabe'	"...itauna baitzetorkion taigabeki burura..."	(223)
talaia 'ikuspegi handiko tokia'	" Talaia hartatik beleak ikusi zituen berriro..."	(134)
tarrapatan-tarrapatan 'arrapaladan, trapaladan'	"...zaldi gorri baten gainean baserrira itzuli zenean, tarrapatan-tarrapatan ."	(42)



tesabi 'aska (abereen jateko ontzia edo	"Eta tesabian lanari ekin eta berehala atera zen herrian egun haietan ahoz aho zebilen berria..."	(99)
tranbalaldi 'zabukaldia, kulunkaldia'	"...Trinido makal gainera igo eta bilintzi-balantza ibili zen hartan (...) tranbalaldi haiek gehiegizkoak izan zitezkeelakoan..."	(56)
txilibitu 'txistua (ez musikarako)'	" Txilibituak egiten eta, orduan ikasi nuen nik, esate baterako, horretarako gaztaina edo lizar altsumak erabiliz."	(30)
tximitxa 'intsektu mota, imutxa'	"...ganbaran lo zegien bakoitzean gorputzari itsasten zitzaizkion tximitxak eta arkakusoak izan ezik..."	(117)
ubelgune 'beltzunea, ubelduriko gunea'	"...ausiki haiek ubelgunez josi zizuten azala."	(175)
urubiaka 'uhuriaka, uluka'	"...ilundu baino lehentxeago aiurika eta urubiaka ekin zion otsoak, bildotsak beeka."	(86)
usu 'askotan, sarri, maiz'	"...kobazulora eramaten zuela aditu izan baitzenuen usu ..."	(19)
usula 'zurezko ur baldea'	"Joan nintzen, bada, ur bila, bete nuen usula , etxeratzen hasi nintzen..."	(225)
xularme 'poroa, xuloa'	"...lehertutako galdara gorria bailitzan, azaleko xularme orotatik egin zion gainezka bekaitzak Felizianori..."	(53)
zamalka 'gainean, hurbiletik'	"...bataren ziztuari bestearena zamalka bailerraion."	(183)
zarea? 'al zara'	"...Lurruspeko kobazuloan nuen ehundegian: oroitzen zarea? "	(132)
zartaka egin 'pindartu, txingartu'	"Batzuetan zartaka egiten zuen suak..."	(181)
zedarri 'mugarria, muga'	"...eskuetatik ihes egiten zion egoerari zedarri bat jarri nahi izan zion..."	(67)
zehartu 'bira egin, itxi'	"...berak hilzorian zabaldu zizkizun begietako leihoak zehartu arte."	(182)
zemaian 'ematen zien'	"...horrek beste baserriek ez zuten berezko berezitasun bat zemaian ."	(15)
zilipurdika 'txiribueltaka, itzulipurdika'	"Harrapatu nuenean biok ibili ginen irinaren gainean, zilipurdika eta burumutxika, besarkatuta eta barrez."	(97)
zintzarri 'joarea, kanpaitxo'	"Polita zen haiengana iritsi eta haien zintzarriak dantzan ikustea..."	(30)
zirimola 'ekaitza, erauntsia'	"Eta indianoaren hitzak haize- zirimolaren antzera sartu zitzaizkion buruan..."	(128)
ziztu bizian 'ahalean, habailan'	"...hilariorren zaldi gaineke silueta begiztatu zuenean, bertara hurreratu zitzaion, ziztu bizian ."	(118)
zogi 'zuhur, arretaz'	"...beste baserriarren haiekiko jokabidea bikoitza zen, alde batetik zuhur eta zogi azaltzen baitziren..."	(15)
zohi 'lur puska gogorra, mokila'	"...ez dut esan haiek hamaika urte zituztenerako laiarekin zohia hausteko gauza zirenik..."	(133)
zoko eginik 'lur jota'	" Zoko eginik etorri zen Feliziano gerratik."	(94)
zumats 'trukesa, kurrikatxo'	"...etxeko sua bildu, errautsez estali, gainean paleta eta zumatsak gurutzaturik paratu..."	(26)
zurrunba 'presa'	"...Trinido behe-behean geratzen zelarik, zurrunba ondoko makalean igota."	(187)



zurrut
'tragoskada'

"...bere teoria sozial eta ekonomikoak sakontzeari ekingo zion, ahamenik ahamen, zurrutik **zurrut**."

(125)